

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bakioko Udala****Herri jabaria mahai eta aulkiekin okupatzeagatik tasaren errolda**

Herri jabaria mahai eta aulkiekin okupatzeagatik tasa ordaindu beharreen dauden udalerrri honetako herritarrei jakinarazten zaie ordaintzeko borondatezko epea zabaldu dela, betiere Alkatetzaren azaroaren 23ko Dekretuaren bidez tasa horren errolda onetsi eta gero. Horrela bada, ostean ageri dira ordaintzeko modua, epea eta tokia.

Eta hori guztia 15 asteguneko epean jendaurrean ezarri da, zergapekoek aztertu eta, egokitzat jotzen badute, erroldaren aurkako bidezko erreklamazioak egin ditzaten.

Iragarkia, jakinarazi dela ulertu behar izango da, Dirubilletari buruzko martxoaren 26ko 3/86 Foru Arauaren 125. artikulua 21. atalean ezarritakoaren arabera.

ORDAINTZEKO TOKI ETA MODUAK**1. Borondatezko ordainketa**

a) *Epea*: 2018ko abenduaren 21etik 2019ko urtarrilaren 21era, biak barne.

b) *Ordaintzeko tokia eta modua*:

— Helbideratu gabeko erreziiboak: etxeetara bidali diren orriak BBK edozein bulegoetan aurkeztu ahal izango dira.

— Helbideratutako erreziiboak: Banketxe zehatz baten bitartez ordainketa egiteko agindu duten zergadunen kasuan, erreziiboa zordunduko zaie horretarako ezarritako kontuan.

Orriak jaso ez edo orriak galdu badira, udal bulegoetara jo beharra dago.

Orriak hartu ez izanak ez du esan gura ez duzula ordainketa egin behar.

Zergadunek aurrezki kutxetan eta banketxeetan helbidera ditzakete euren erreziiboak.

2. Betearazpidea

Borondatezko ordainketako epea amaituta, derrigorrezko epea automatikoki hasiko da, %5eko gainkargua ezarriz. Premiamenduzko erabakia jakinarazten denetik hilabete bat igarota, gainkargua %20koa izango da eta, horrez gain, borondatezko epea amaitu zenetik berandutze-interesak eta legez eska daitezkeen kostuak gehituko dira. Ordainketa udal bulegoetan bakarrik egin ahal izango da.

Errekurtsoaren aurkezpenak ez du geldiaraziko kobratzeko prozedura, betiere zorra bermatzen ez bada legeak ezarritakoaren arabera.

Bakion, 2018ko azaroaren 23an.— Alkate andrea, Amets Jauregizar Baraizarra